



# Antxinako fotografixia

## San Migel parrokiako sepulturak



Hilddakuak etziran garai batian hillerrittan lurperaketan, elizetan baiño. Herriko parrokixa barruan famelixa bakoitzak bere **hillobi** edo **sepultura** eukitten eben. Oñatin hiru parrokixa diranez, hiruretan egozen herritarrentzako enterrementu-lekuak, hau da, kaleko San Migelen, Urruxolako Andra Marin eta Araotzeko San Migelen. Horreittatik aparte, Bidaurretako elizia be ebali zan batzuetan zeregin honeittarako. XIX. gizaldixan, arrazoi higienikuengatik batez be, hilddakuak elizetatik kanpora enterraitten hasi ziran. Oñatiko lehenengo **kanposantua** Goribar auzuan egin zan, Santa Kataliñaren ermitta onduan, 1810-1815 bitartian. Bihar dan modukua etzala-eta, 1865ian barrixa jasotiarri ekin otzain Garagaltzako San Juan eta Urrutxu artian, eta gaur egunian be, alde bittara zabalduta, hantxe jarraitetan dau.

Elizetako sepulturak zelakuak izaten ziran Bidaurretan eta Araotzen ikusi geinke oraindiok. Baiña kaleko parrokixakuak gerra aurtxuan galdu ziran, elizako zorua barriztau euenian. Horregatik oso interesantia da 1918-1920 inguruko fotografixa honek erakusten doskuna: Errosarixoko kapilla aurretik klaustoraiño tarte horretan hainbat hillobi agerketan xaku. Ixa eliza-zoru guztia eguen

holaxe beteta; klaustro-aldia kenduta, jakiña, hau 1956ra arte elizatik aparte geldiketan zan-eta. Halako sepulturen gaiñian jarten zittuan difuntuaren famelixiak tela baltza eta kandelak **entierro** egunian eta **bederatzuurren** guztian; baita domekereko **meza nagusittan** be. Ohittura horri parrokixa danian bankuak ifiñi ziran arte eutsi xakon.

J. E.

Xabier Zelaiak itxittako argazkixa



# JAKIÖN



Deba Garaiko Baserriko Barazki eta Fruta Kontserbak  
Conservas de Fruta y Verdura de Caseríos de la Comarca del Alto Deba

JAKION S.L. • San Miguel plaza, 4 etxabea.

20530 Leintz Gatzaga • Gipuzkoa • Tfnoa: (943) 71 46 86 • Faxa: (943) 71 46 21

### Oñatin Honako Dendetan Salgai:

San Migel Kooperatiba  
Kale Barria, 8  
Antxon Harategia  
San Lorenzo, 5  
San Lorenzo Frutadenda  
San Lorenzo, 16  
Garai Harategia  
Maiatzaren Bata plaza, 2  
Tarsicio Harategia  
Portu Kale